

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresaren funtsezko jarduera nagusia bezeroei motor pertsonalizatuak ematean datza. Hau egiteko hainbat jarduera egin behar dira:

Lehendabizi, hornitzaile batzuegandik piezak eta Batec Mobility enpresatik motor berezi hauek lortuko ditugu. Pieza hauek egin behar dugun pertsonalizazio bakoitza egitea ahalbidetuko digute eta horrela gure erosleei euren independentzia ematen diegu.

Ondoren, motor hauek muntatuko ditugu erabiltzaile bakoitzaren beharren arabera autonomia eskaintzeko hauei. Prozesu hau kontu handiz aztertuko dugu arazorik eduki ez dezagun bezeroekin, eta baita gure tratua eta balioa nabarmentzeko ere.

Gero, hainbat dendekin hitzarmen batzuk egingo ditugu beraiek gure produktua erosleei eskeini diezaioten, eta horrela ahalik eta lesionatu gehien egongo dira euren beharrak aseturik dauzkatela. Denda hauek gure patrozinioa izango dute. Horrela elkar lagunduko diogu, beraiek hornitzailearen bat galtzen badute guk hor jarraituko dugu, eta guk bezero bermatuak izango ditugu, denda hauen bezero batzuk izango direla.

Azkenik, Interneten web orrialde praktiko eta erabil erraz bat sortuko dugu. Gure enpresari



buruz informazioa emanez, eskaintzen ditugun produktuak, euren pertsonalizazioak eta prezioak erakutsiz, eta azkenik eskaerak egiteko aukera emango dugu, txat laguntzaile batekin. Prezio hauek, lehiakideenen antzekoak izango dira merkatuan sartu berriak izango garelako. Beranduago prezioak pixka bat jaisten saiatuko gara erosle gehiago lortze aldera.